



**Hezkuntza publikoan  
lan baldintzak hobetu.**  
Hemen eta orain erabakita.

**Prentsa oharra:**  
Otsailak 27ko greba balorazioa

## **EAEko Hezkuntza Publikoko irakasleen urtarrileko eta otsaileko greba zikloaren amaieran, sindikatu deitzaileek greben jarraipen zabala azpimarratu dute**

STEILAS, LAB, ELA eta CCOO sindikatuok deitutako **grebak jarraipen zabala izan du, azken 3 greba egunen antzera.** EAEko Unibertsitatez kanpoko hezkuntza publikoko 27.000 irakasle zeuden gaurko grebara deituak.

Sindikatuak batutako datuen arabera, gaurko greba ere deitutako **irakasleen %75ak babestu** du. Eusko Jaurlaritzak ezarritako **gehiegizko zerbitzu minimoekin, greba baldintzatu** nahi izan du Hala ere, urtarrilean 2 egunez milaka irakasle kalera atera ginen. Otsailean ere beste bi egunez beste hainbeste izan gara berriro kalera atera garenak. Horrela gure desadostasuna berretsi dugu eta **gure greba eskubidea erabili dugu indar erakusketa eredugarria eginez hezkuntza publikoaren defentsan.**

Urtarrileko eta otsaileko lau greba egunetan **“Lan baldintzak hobetu, hemen eta orain erabakita!”** lelopean deitutako mobilizazioetan milaka langile elkartu dira Ziklo honetan deitutako mobilizazio eta greben bitartez salatu dute EAEn Hezkuntza Sail berria dugun arren, azken urteetako jokamolde berbera dugula mahai gainean: **Hezkuntzako langileen lan-baldintzak okertzen ari dira,** Hezkuntza Sailak erabakiak aldebakarrez hartzen dituelako eta negoziazioak eduki esanguratsu gabe etengabe luzatzen dituztelako.

Azken grebek eta mobilizazioek bi mahai deitzera eta pausu bakan batzuk ematera behartu dute Jaurlaritza. Argi dago grebak direla Jaurlaritza mugiarazten dutenak. Tamalez, **oraindik grebetako eskaerei erantzungo dioten balizko proposamenetatik urrun dago.** Astelehenean, bilera batera deitu zituen sindikatuak alde aurretik idatzizko inongo proposamenik bidali gabe eta ahoz. Aldiz, herenegun azken uneko bilera batera deitu gintuzten. **Bi egunetan helarazi zizkiguten edukiak ez ditugu nahikotzat jotzen.** Beraz, beste behin ere Hezkuntza Sailaren asmoa negoziaketak irudikatzea izan zen. **Bereziki larria da Jaurlaritza,** langileen gehiengoa ordezkatzeko ez duten sindikatuarekin, grebetan milaka langile aldarrikatzen ari diren edukiak jarri gabe eta langileen %90a ordezkatzeko greba deitzaileen kontra, **gutxiengoan akordioa sinatzeko prest agertu izana.**


Egun hauetan irakasleok oso **mezu argiak** helarazi dizkiogu Hezkuntza Sailari:

- 15 urte direla hitzarmena eguneratu gabe; eta aski dela.
- Lan zamak arintzea, enplegu publikoa kontsolidatu eta bermatzea, eros ahalmena berreskuratzea, lan osasuna zein euskara eta hezkidetzaren bermatzeko neurriak proposatzeko garaia dela.
- Ez badago aldarrikapen hauekiko erantzunik grebetan jarraitzeko indarrekin gaudela.

Beraz, Hezkuntza sailari grebak zapuzteko tresna eta jarrera onartezinak albo batera utzi eta langileen gehiengoa ordezkatzeko ez duten sindikatuarekin **gutxiengoan ez sinatzeko konpromisoa eskatzen diogu.** Azken momentuko eduki nahikorik gabeko mahaiak deitzeari uzteko eskatzen diogu, grebak desaktibatze gaitur eta estrategiak alboratzeko eta **eskaera hauei erantzungo dioten proposamenak egiteko.** Hezkuntza publikoa indartzeko ezinbestekoa da inbertsioa handitu eta lan baldintzak hobetu eta baliabideez hornitzea.

Gaurko emaitza kontutan izanda, **deialdi honetan gauden sindikatu deitzaileok baloratuko dugu datozen mobilizazioak nolakoak izango diren.**





**Mejora de las condiciones laborales en la educación pública.**  
Decididas aquí y ahora.

**Nota de prensa:**  
**Valoración de la huelga del 27 de febrero**

## **Los sindicatos convocantes destacan el amplio seguimiento de las huelgas del profesorado de la enseñanza pública vasca al término del ciclo de huelga de enero y febrero.**

La huelga convocada por STEILAS, LAB, ELA y CCOO ha tenido un **amplio seguimiento, similar a los últimos 3 días de huelga**. 27.000 profesores de la enseñanza pública no universitaria de la CAV estaban llamados a la huelga de hoy.

Según los datos recogidos por los sindicatos, la huelga de hoy también ha sido **secundada por el 75% de los docentes convocados**. El Gobierno Vasco ha querido **condicionar la huelga** con los **servicios mínimos abusivos** establecidos. En Enero miles de profesores salimos a la calle. En febrero también hemos sido miles las que hemos vuelto a salir a la calle. Así hemos ratificado nuestro desacuerdo y **hemos ejercido nuestro derecho de huelga haciendo una demostración ejemplar de fuerza en defensa de la educación pública**.

Durante las cuatro jornadas de huelga de enero y febrero, miles de trabajadoras han secundado las movilizaciones convocadas bajo el lema "**¡Mejora de las condiciones laborales, decididas aquí y ahora!**". A través de las movilizaciones y huelgas convocadas en este ciclo han denunciado que, a pesar de que en la CAV tenemos un nuevo Departamento de Educación, tenemos sobre la mesa la misma forma de actuar que en los últimos años: **empeorando las condiciones laborales de las trabajadoras de Educación**, porque el departamento toma decisiones unilateralmente y alarga permanentemente las negociaciones sin un contenido significativo.

Las últimas huelgas y movilizaciones han obligado al Ejecutivo a convocar dos mesas y a dar algunos pasos aislados. Es evidente que son las huelgas las que mueven al Gobierno. Lamentablemente, **todavía está lejos de las posibles propuestas que responderán a las demandas de las huelgas**. El lunes convocó a los sindicatos a una reunión sin haber enviado previamente ninguna propuesta por escrito. En cambio, anteayer fuimos convocados a una reunión de último momento. **Los contenidos que nos hicieron llegar en estos dos días no los consideramos suficientes**. Así que, una vez más, la intención del Departamento de Educación fue escenificar las negociaciones. **Es especialmente grave que el Gobierno Vasco**, con sindicatos que no representan a la mayoría de las trabajadoras, se haya mostrado **dispuesto a firmar un acuerdo en minoría** sin poner los contenidos que están reivindicando miles de trabajadores en las huelgas y en contra de los convocantes del ciclo de huelga, que representan al 90% de la plantilla.

Estos días los docentes hemos lanzado **mensajes muy claros** al Departamento de Educación:

- 15 años sin actualizar el convenio, ya basta.
- Es el momento de proponer medidas para aliviar las cargas de trabajo, consolidar y garantizar el empleo público, recuperar el poder adquisitivo, garantizar la salud laboral y el euskera y la coeducación.
- Si no hay respuesta a estas reivindicaciones tenemos fuerza suficiente para continuar con las huelgas.

Por lo tanto, **pedimos al Departamento de Educación que se comprometa a no firmar en minoría** con los sindicatos que no representan a la mayoría de los trabajadores y trabajadoras, dejando de lado las inaceptables herramientas y actitudes para frustrar de las huelgas. Le pedimos que deje de convocar mesas sin contenido suficiente en el último momento, que abandone las cartas y estrategias para desactivar las huelgas y **que haga propuestas que respondan a estas peticiones**. Para reforzar la educación pública es imprescindible aumentar la inversión y mejorar las condiciones laborales y dotarla de recursos.

Teniendo en cuenta el resultado de hoy, **los sindicatos convocantes en este día de huelga valoraremos el carácter de las próximas movilizaciones**.

